

Amets txikien iraultza

(Abiapuntuan, Eusko Jaurlaritzaren V. Plangintzaldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana)¹

Patxi Bazterrika Galparsoro

Hizkuntza Politikarako sailburuordea. Eusko Jaurlaritza

Sarrera-data: 2014-05-20 / Onartze-data: 2014-06-13

Laburpena: Artikulu honek bi zati ditu, artikulua oinarrian dagoen hitzaldiak -2014ko maiatzaren 16an Udaltopen emandakoak- izan zituen bezala: lehenengoa, Eusko Jaurlaritzak V. plangintzaldirako onartu duen eta garatzen ari den Euskararen Erabilera Plan Nagusiaren zertzelada nagusiak azaltzeari atxikia da, Plan horrek aurreko Planekiko dituen berrikuntzak nabarmenduz betiere. Bigarren zatia, ordea, proposamen bat da, proposamen bat herri-administrazioetako V. Plangintzaldiaren testuingurua eta aukera balia ditzagun administrazioan euskararen erabilera gero eta normalizatuagoa egiteko bide berrien bila. • **Hitz-gakoak:** *Hizkuntza normalizazioa, hizkuntza plangintza, hizkuntza eskakizuna, administrazioko hizkuntza.*

Abstract: This article has two parts, just as the lecture -delivered at the Udaltop on 16 May 2014- had, and they form the basis of this article: the first is devoted to explaining the main lines of the General Scheme for Basque Use approved and being developed by the 5th Planning Period of the Government of the Basque Autonomous Community, while emphasising the new details of this plan with respect to the previous ones. The second part, however, is a proposal, a proposal for seeking new ways of making Basque use more and more normal in the administration by taking advantage of the context and opportunity of the 5th Planning Period of the Public Administrations. • **Key Words:** *Language normalisation, language planning, language profile, administrative language.*

Euskara administrazioko luze-zabalean —gune gutxi batzuetatik harago, alegia— zerbitzu hizkuntza ez ezik lan hizkuntza ere izan daitekeela erakutsi behar diogu geure buruari eta erakutsi behar diegu ondokoei. Helburu horretaranzko bide malkartsua egiterakoan amets handien ameskerian amildu eta indarrak agortuko ez baditugu, baizik eta arrakastari atea irekiko badiogu, uste dut asmatu beharko genukeela egunerokotasunari eta hurbileko errealitate aski konplexu eta askotarikoari lotutako amets txikiak egiten, partekatzen eta gauzatzen. Horretara dator *amets txikien iraultza* deituriko gogoeta eta proposamena, etorkizun hurbilerako proposamen zehatz bezain irekiez osatua, ezinbestez guztien ekarpenekin osatu beharko den proposamen osatugabea. Eta konbenzimendu bat guztiaren abiaburuan: berrikuntza dela bidea.

1. EUSKO JAURLARITZAREN V. PLANGINTZALDIRAKO EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN GAINEKO ZERTZELADAK, BERRIKUNTZEN ILDOTIK

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2013ko abenduan onartu zuen V. Plangintzaldian Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko Plan Nagusi berria (EHAO, 2014-01-24). Lege-oinarriak Euskadiko lege-arauetan ez ezik (Euskararen Legea, Euskal Funtzio Publikoaren Legea eta Herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko 86/1997 dekretua), Estatuko legerian ere badira (Euskararen Legearen aurka Espainiako Gobernuak tarteratu zuen errekurtsuaren gainean Auzitegi Konstituzionalak 1986an eman zuen epaia eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua).

Ez gara hutsetik hasi. Ibilbide luzea egin da euskal administrazioetan euskara sustatzeko jardunean. 1990ean ekin zitzaion Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Planak egiteari. Ordukoak dira lehenengo planak. Aipagai dugun Planaren aurrekari hurbilenekoak hiru dira: batetik, herri-administrazio guztien ekarpenekin egindako IV. Plangintzaldiaren ebaluazioan V. Plangintzaldiari begira jasotzen diren proposamenak; bestetik, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP); eta, hirugarrenik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (aurrerantzean, HPS) V. Plangintzaldirako emandako irizpide orokorrak.

Urteotako ibilbidea ez da hutsaren hurrengo izan: egin asmo dugunaren handitasunak edo lortu asmo genuena nahi/behar besteko neurrian erdietsi ez izanak ez gintuzke egindako aurrerakada ahaztera, gutxiestera edo lausotzera eraman behar, are gutxiago ukatzera, itze-

***Euskara
administrazioko
luze-zabalean
—gune gutxi
batzuetatik
harago, alegia—
zerbitzu
hizkuntza ez ezik
lan hizkuntza ere
izan daitekeela
erakutsi behar
diogu geure
buruari eta
erakutsi behar
diegu ondokoei.***

1995ean, Jaurlaritzako langileen %23 besterik ez zen lana euskaraz egiteko gai, baina gaur egun %61 dira euskaraz neurri batean lan egiteko gai.

Helburuak helburu, bada arau bat edozein kasutan sakratua dena: bi hizkuntza ofizialen artean herritarrak egindako hizkuntza aukera errespetatzea kasu guztietan.

lezkoa baita egindakoa, askoren ahalegina tarteko. 1995ean, Jaurlaritzako langileen %23 besterik ez zen lana euskaraz egiteko gai, baina gaur egun %61 dira euskaraz neurri batean lan egiteko gai. Duela 20 urte halako bi eta erdi pasa. Hots, gaur egun badira 4.052 langile neurri batean lana euskaraz egiteko gai. Horren ondoan esan behar da, aurrerakada hori oso apala izan dela euskara lan hizkuntza gisa erabiltzerakoan; nire iritzian, aurrerakada ez da izan ahal bestekoa, ez da izan ezta ere behar bestekoa. Uste dut egindako ahaleginari —handia eta askotarikoa baita egindako ahalegina— atera zekiokeela etekin handiagorik. Horregatik, Plan Nagusi honen ezaugarri nagusien artean nagusia da, Jaurlaritzan euskara laneko hizkuntza gisa nabarmen gehiago erabiltzeko neurriak hartu eta garatzea. Hori dugu erronka nagusia: egiaztatzea euskara lan hizkuntza ohiko gisa gero eta gehiago erabiltzea egingarria dela.

Kontuan hartzekoa da lanean euskara erabiltzeko gai dela Gobernu honetako goi kargudunen %73: aukera ederra bezain erantzukizun bikaina, beraz, Gobernuak aurrez aurre duena.

1.1 Eragin eremua eta helburu nagusia

EAEko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomiadunetarako da Plan hau (alde batera geratzen dira Justizia Administrazioa, Ertzaintza eta Osakidetza, horiek Erabilera Plan berariazkoak baitituzte). Lehen aldiz sozietate publikoetarako plan eredu bat proposatzen da. Horra hor Plan honen eskutik datozkigun berrikuntzetariko bat.

Helburuak helburu, bada arau bat edozein kasutan *sakratua* dena: bi hizkuntza ofizialen artean herritarrak egindako hizkuntza aukera errespetatzea kasu guztietan. Eskubide hori errespetatzea da oren gainera dagoena. Asko, ikaragarri, aurreratu da eskubide hori egiazki errespetatzerakoan, baina oraindik ere lanak ematen ditu, lan handiak, eskubide hori espresuki eta testuinguru guztietan, inolako gorabehera eta deserosotasunik gabe, Administrazio Orokorrean zein erakunde autonomiadunetan betetzeak. Lehentasunetan lehentasun izaten jarraitzen du.

Jaurlaritzak gizarte osora begira duen helburuarekin bat egiten du Planaren helburu nagusiak, normala denez. Euskal gizartean elebitasun iraunkorra (sosteniblea) eraikitzea du helburu Eusko Jaurlaritzak, gaur egun daukagun euskara eta gaztelaniaren arteko elebitasun desorekatua gaintzen jarraituz. Hori egin ezean, izan, bi hizkuntza, euskara eta gaztelania, izango genituzkeen arren, biak ofizialak, ez baikenuke euskara bigarren mailako hizkuntza izateko arriskua saihestuko. Gure zerumugan, bi hizkuntza ofizialen arteko oreka eta berdintasuna ditugu

gizartean helburu. Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuetan ere bi hizkuntza ofizialen arteko elebitasun iraunkor eta orekatua dugu helburu.

1.2 Helburu orokorrak, zehar-lerroak eta neurriak

Lau dira Plan honen helburu orokorrak, eta badira, gainera, lau helburu orokor horietan guztietan eragina duten hiru zehar-lerro. Helburu orokorrak dira:

—Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea Eusko Jaurlaritzarekiko harremanetan.

—Euskara lan hizkuntza izateko pauso zehatzak, neurgarriak eta aurreragarriak ematea, erabiltzen denaren eta erabili litekeenaren arteko aldea murriztuz.

—Herri administrazioen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzea, administrazioei dagokielako legea bete eta betearaztea, eta euskara harreman hizkuntzatzat normaltasunez erabiltzerakoan eredugarri izatea.

—Goi kargudun politikoen lidergoa eta inplikazioa indartzea, euskararen normalizazioa erakunde bakoitzaren ohiko jardunean txertatuz.

Horra hor beste berrikuntza garrantzitsu eta nabarmen bat: laugarren tokian izendaturiko helburu orokorra (eta horri loturiko zehar-lerroak), hain zuzen ere.

Eta, esan bezala, lau helburu orokor horiek garatzeko badira hiru zehar-lerro:

—Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, sailez sail.

—Langileen eta erakunde-ordezkarikari politikoen euskara gaitasuna handitzea.

—Langileen eta erakunde-ordezkarikari politikoen euskararekiko atxikimendua eta adostasuna areagotzea.

Helburu orokor eta hiru zehar-lerro horietako bakoitza garatzeko neurri zehatzak finkatu dira: guztira 49 neurri. Gainera, aurreko Planekin alderatuta, berrikuntza garrantzitsu bat dago: helburu orokor eta zehar-lerro bakoitzaren jarraipenerako adierazleak finkatu dira, ebaluazioa erraztu eta ahalbidetzeko. Guztira, badira 12 adierazle nagusi, eta hainbat azpi-adierazle.

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak dira Planaren oinarri nagusietarikoa, eta irizpide multzo zabal bezain zehatza finkaturik da

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuetan ere bi hizkuntza ofizialen arteko elebitasun iraunkor eta orekatua dugu helburu.

Goi kargudun politikoen lidergoa eta inplikazioa indartzea, euskararen normalizazioa erakunde bakoitzaren ohiko jardunean txertatuz.

Hizkuntza eskakizunen derrigortasun-datari dagokionez, berriz, Erabilera Plan honetako indizea %48,46 da, aurreko Plangintzaldikoa baino 4,59 puntu altuagoa.

Planean. Horien artean badira bi Jaurlaritzaren planetan berrikuntza direnez nabarmendu nahi ditudanak. Nabarmenduko nuke erakunde-ordezkarien agerraldi publikoetarako irizpidea ematen dela Plan honetan. Gobernuko erakunde-ordezkarien euskararen erabilera agerraldi publikoetan %29koa izan da aurreko Plangintzaldian. Plan berriaren arabera, euskaraz jarduteko gai diren goi kargudunek agerraldi publikoetan, oro har, emango diote euskarazko jardunari gutxienez gaztelaniazkoari ematen dioten pisua, bai denborari dagokionez, bai gaiaren tratamenduari dagokionez. Ahalegin berezia egiteko asmoa dugu Legebiltzarrean eta hedabideen aurrean egiten diren mintza-jardunetan.

Nabarmendu nahi dut, baita ere, kontratazio administratiboan aplikatu behar diren hizkuntza irizpideen jarraipen iraunkorrerako sistema berriazko bat finkatzen dela. Irizpide horiek indarrean daude Eusko Jaurlaritzan 2006ko otsailetik, eta V. Plangintzaldirako ere espresuki berretsita geratu dira, berriazko jarraipen-sistema eta guzti.

1.3 Hizkuntza eskakizunen derrigortasun maila dela-eta

Hein handi batean hizkuntza eskakizunetan oinarrituriko sistemari zor zaio herri-administrazioetan azken bi hamarkadotan izan den aurrerakada. Askotarikoa izan da hizkuntza eskakizunen aplikazioan urraturiko bidea, bai asignazioei dagokionez, bai derrigortasun-datak ezartzeari dagokionez, besteak beste. Egokitzapen eta eguneratze beharra bistakoa da hainbat kasutan, hogeitaz buruan normala denez. Horrela, bada, lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunak berraztertze aukera eman zaio espresuki sail eta autonomiadun erakunde bakoitzari.

Hizkuntza eskakizunen derrigortasun-datari dagokionez, berriz, Erabilera Plan honetako indizea %48,46 da, aurreko Plangintzaldikoa baino 4,59 puntu altuagoa. Horrek ondorioz, gutxienez berrehundik gora lanpostu gehiagok izango du derrigortasun data.

Honetan ere bada beste berrikuntza bat: derrigortasun indizea, Jaurlaritzak orain arte bezala bere osotasunean eta batez bestekoan ez ezik, Sail bakoitzak eta erakunde autonomiadun bakoitzak ere bete egingo du. Indize hori gutxienerako abiapuntutzat hartzen da Erabilera Planean. Jaurlaritzak legeria urratuko luke derrigortasun indizea hortik behera aplikatuko balu, eta beharrezko den kasuetan hortik gora jo dezake, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak 2011n emandako epaiaren arabera. Planean bederatzi irizpide jasotzen dira derrigortasun indizearen aplikaziorako lagungarri.

1.4 Metodologia eta jarraipena

Planaren metodologiaren ezaugarri batzuk aipatzera jarrita, ondorengook nabarmenduko nituzke:

- Diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibo batetik abiatzen da.
- Gidari edo iparrorratza Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak dira.
- Emaitzetara bideratutako metodologia da, eta bateratua, Sail guztiak eta erakunde autonomiadun guztiak bide bertsutik ibil daitezten.
- Helburu bakoitzak adierazle propioak ditu.
- Eta badu antolakuntza egitura bat.

Euskararen Erabilera Plan hau Jaurlaritza osoaren Plan Nagusia da, eta Plan honen garapenerako Sail bakoitzak bere Erabilera Plana egin berri du eta, udarako, 2014 eta 2015erako kudeaketa plan propioa bukatuko du. Eta horretarako organo eragileak Saisetako Euskara Atalak dira. Era berean, Sail bakoitzak bere komunikazio egitasmo propioa du dagoeneko. Eta ebaluaziorako hiru epealdi finkatu dira: urtez urtekoa, tarteko ebaluazioa (2015eko amaieran egingo dena) eta amaierako ebaluazioa (2017ko amaierakoa Planaren betetze maila aztertuko duena).

Azkenik, antolamendu eta egiturari dagokionez, Saisetako Euskara Atalak dira Erabilera Planaren zutoin nagusia. Legealdi honetako berrikuntza dira Atal horiek, legealdi honetan eratu baitira. Antolakuntzako organo batean edo bestean parte hartzen dute sailtako Euskara Atalek, hizkuntza normalizazioko teknikariek, Funtzio Publikoko Sailburuordetzak, IVAPek, Langileen Batzordearen ordezkariak eta HPSk.

Erabilera Plan nagusi hau osatzen da Jaurlaritzaren sozietate publikoetarako erabilera plan eredu batekin, eta hau ere bada V. Plan honen beste berrikuntza bat, oraingoan egin baita lehen aldiz.

1.5 Berrikuntzak, labor

Honenbestez, laburbiltze modura, Eusko Jaurlaritzaren aurreko Euskararen Erabilera Planekiko aldaketa edo berrikuntzen artean, ondorengook nabarmendu litezke:

- Sail bakoitzean Euskara Atala sortu da. Saisetako Euskara Atalak dira Erabilera Planaren zutoin nagusia.
- Helburu orokor eta zehar-lerro bakoitzaren jarraipenerako adierazleak finkatu dira: 12 adierazle nagusi eta azpi-adierazleak.
- Funtzio Publikoko Sailburuordetzak egin beharrean, lehenik eta

***Lehen aldiz,
Jaurlaritzaren
sozietate
publikoetarako
erabilera plan
eredu bat onartu
da.***

**Aitor dezadan
hain gogoko eta
asebetegarri
ditudan Xabier
Leteren olerki
eta hainbat
artikulutatik nire
erara jasotako
kontzeptua
dudala “amets
txikien iraultza”,
gehiagotan ere
erabili dudana.**

behin Sail bakoitzak egingo du bere arloko lanpostuei hizkuntza eskakizunak asigantzeko eta legezkiekeen derrigortasun datak ezartzeko proposamena.

—Derrigortasun indizea gutxienekoa izango da, eta Jaurlaritzak bere osotasunean ez ezik, Sail bakoitzak ere bete egingo du.

—Lehen aldiz, Jaurlaritzaren sozietate publikoetarako erabilera plan eredu bat onartu da.

—Erakunde-ordezkarrien (goi kargudunen) agerraldi publikoetarako hizkuntza irizpideak finkatu dira.

—2006ko otsailetik indarrean dauden kontratazio administratiborako hizkuntza irizpideen aplikazioaren jarraipen iraunkorrerako sistema finkatu da.

—Goi kargudun politikoen lidergoa garatzea helburu espezifiko legez finkatu da.

2. BERRIKUNTZARAKO PROPOSAMEN IREKIA: AMETS TXIKIAK, ELKARREKIN ETA ELKARRENTZAT BERRITUZ

Aitor dezadan hain gogoko eta asebetegarri ditudan Xabier Leteren olerki eta hainbat artikulutatik nire erara jasotako kontzeptua dudala “amets txikien iraultza”, gehiagotan ere erabili dudana. Urteak dira, urte asko, “nik ez dut amets haundirik” kantatzen zuela Urnietako poeta oiartzuarrak. Hitz haietan eta Leteren hainbat idazlanetan irakurritakoaren interpretazio propioan dago “Amets txikien iraultza” izenburuaren eta ideiaaren sorburua.

Nik ez dut amets haundirik
zeru ederrik eskaintzen,
etsipenaren mugetan
zuekin nago bizitzen.

Nik ez dut solas lodirik
etorkizunaz egiten,
bat-bateko librakuntzaz
ez dut aspaldi sinisten.

Eguneroko fruituaz
eskuak bete ditzagun:
alferrik da bihozkadaz
egoerari erantzun.

Kantu bihurtutako olerki horretako ideia bera da artikulu bat baino gehiagotan Letek jorratu zuena. Adibide bat da hurrengo hau:

“Amets handiek, itxaropen handiek, etorkizuneko zorionaren aldarrikapen handiek, izugarrizko mesfidantza sorrarazten didate. Ez, nik ez dut amets handirik behar; ez dut gezurrean bizi nahi. Proposa diezazkidatela erreforma zail baina posibleak, jendearen bizimodua hobeagotu dezaketenak. Ez dezala nehork (...) kunplitu ezin den fantasiarik proposatu”.

Ametsik bai? “Bai”, litzateke erantzuna, ezbairik gabe emana. Ametsik gabe nekez eraiki baitaiteke etorkizun hobeago baterako zerumugarik, nekez hoberantz mugiarazten gaituzten bizipozik eta bizi-indarririk, nekez eraldaketarako bulkadarik, nekez aurrerabide justuagorik. Nolako ametsak, ordea? Handiak? “Ez”, litzateke erantzuna, hau ere ezbairik gabe. Ametsak bai, amets txikiak baina. Hain zuzen ere, hobekuntza, eraldaketa eta bulkadaren ondoan nahitaezkoak baitira egingarritasuna eta pausoz pausoko jarduna, batzuek eta besteek partekatu dezaketen ekinbidea izatea, konplexutasunak eskatzen duen ñabardurez jositako ehuna izatea, eta saregintza zabal eta irekiak ezinbestez eskatzen duen pragmatikotasuna. Horiek guztiak dira balio positiboak, eta, batez ere dira, balio eraginkorrak.

Azkenaldian, ametsaren irudia eta amets handiaren gaineko gogoeta behin baino gehiagotan erabili izan du Jon Sarasuak, fin asko eta oso modu argigarrian erabili ere, euskararen ibilbideaz ari dela. Niri neuri oso sugerentea izan zait beti metafora hori hainbat gorabeheraz hausnartzeko —ez bakarrik, baina baita ere, hizkuntza politikaz—. Uste dut aproposa dela euskararen eta hizkuntza politikaren plazarako. Bide horretan barrena, hizkuntza politikaren arloan ditugun erronka *handiei* aurre egiteko, “amets txikien iraultza” kontzeptuari heldu nahi izan diot, Xabier Lete handiak maisuki adierazitakoarekin bat eginez, erabat identifikatzen bainaiz Leteren gogoeta haiekin: “Nik ez dut amets haundirik / zeru ederrik eskaintzen (...) bat bateko librakuntzaz / ez dut aspaldi sinisten / (...) alferrik da bihozkadaz / egoerari erantzun”.

Azken urteotako euskararen bilakaera hazkunde jarraitu baten kronika dela adierazi izan dut sarri, era askotako forotan. Baina, aldi berean, argi eta garbi azpimarratu dut, baita ere, “dena eginda dago” bezalako mezu lasaigarri bezain okerririk ezin dugula aireratu. Guztiz garrantzitsua iruditzen zaidalako eginkizun dugunaren korapiloez kontzientzia hartzea. Beste hitzetan esanda: ameskeriarik eta —Mitzelenak idatzi bezala— “handikeriazko menturarik gabe”, halako jarreretatik ezinago urrun, baina, aldi berean, etsipenean edo autoatseginkerian inondik ere

**Eta
administrazio-
aren arloari
zuzenean
lotzearren, esan
dezadan
lehenbailehen:
administrazio
publikoetan asko
aurreratu du
euskarak;
egindako
ahalegina
kontuan
harturik, ordea,
ez da lortu izan
zitekeen
emaitzarik
egokiena.**

**Honen aurrean,
beraz, galdera
nagusietako bat
da nola aktibatu
dezakegun gaur
dugun ahalmen
hori. Nola
bihurtu
ditzakegun
euskaldun
horiek,
egunerokoan,
benetako euskal
hiztun.**

erori gabe, egindakoa sekulakoa izanik ere ikaragarria baita eginkizun duguna. Eginkizun dugun hori, ordea, behar dugu arrakasta bidean gauzatu, pausoz pausoko arrakastarik gabe, eta arrakasta horiek elkarri aitortu gabe, oso nekeza baita eraginkortasunez eta ilusioz jardutea.

Esan dugunez, hazkunde jarraitu baten kronika da euskararen gizarte bilakaerarena azken hiru hamarkadotan. Hazkunde jarraitu hori, baina, ez da bat eta bera izan, neurriari dagokionez, arlo guztietan. Aurrerakadaren tamaina desberdina izan da arlotik arlora: hezkuntzatik administraziora, zerbitzu publikoetatik merkataritzara, lagunartetik lan mundura, etxetik kalera. Eta administrazioaren arloari zuzenean lotze-arren, esan dezadan lehenbailehen: administrazio publikoetan asko aurreratu du euskarak; egindako ahalegina kontuan harturik, ordea, ez da lortu izan zitekeen emaitzarik egokiena.

Adibidez, administrazioan sekula baino euskaldun gehiago ditugu gaur, dela langileen artean, dela agintarien artean. Sekula baino gehiago egiten da euskaraz administrazioan. Euskarak ez du ez pareko ez antzeko erabilerarik sekula izan administrazioan. Baina, ateratzen ote diogu egoera honi atera geniezaiokeen fruiturik onena? Nago ez dela desadostasun handirik izango nahiko erretorikotzat joko genukeen galdera horri ezezkoa erantzuterakoan. Honen aurrean, beraz, galdera nagusietako bat da nola aktibatu dezakegun gaur dugun ahalmen hori. Nola bihurtu ditzakegun euskaldun horiek, egunerokoan, benetako euskal hiztun. “Euskaradunak euskaldun”, beste hitzetan esanda. Eta erantzuna era askotakoa izango da halabeharrez: trebakuntza berezitua, hizkuntzarekiko leialtasuna eta lidergoa, hizkuntza ohituren kudeaketa... ez da izango erantzun bakar eta handi bat, erantzun txiki askoren multzoa baizik.

Gizartea eraldatzen ari da abiada handian, eta etengabe jartzen gaitu egoera eta galdera berrien aurrean. Bizimodu berriak, mugikortasun berriak, beharkizun ekonomiko eta sozial berriak, nahikari berriak ditugu egunero aurrean.

Eta euskararen hazkunde jarraituak berak ere sortu du errealitate sozial guztiz berri bat, errealitate sozial guztiak bezala gorabehera askotan euskararentzako berarentzako paradoxikoa izaten ari dena, alde bakarreko txanponik ez dagoen bezalaxe ez baitago alde bakarreko gertakari sozialik ere. Esate baterako, euskaldunaren profila zeharo aldatu da: gaur egun ez dago elebakarrik gure artean —zorionez, gaineratuko nuke nik— eta euskaldunen artean lehen baino proportzio nabarmen handiago da, adibidez, euskara bigarren hizkuntza dutenena. Hori bezalako faktoreen eragina ez dugu behar beste ikertua eta probatua gurean.

Horregatik, euskararen bilakaeran eta erabileran faktore askok eragiten dutela jabetuta jokatu behar dugu. Izaera anitzeko faktoreak dira: estrukturalak batzuk, eta subjektiboak besteak. Korapilo berriak dira. Ezezagunak zaizkigu asko, eta horrek ziurgabetasuna sorrarazten digu. Baina ez gaitu beldurtu behar. Horietako asko halabeharrez agertuko zaizkigu aurrera egin ahala. Agertuko zaizkigu gaur oraindik agertu ez zaizkigun korapilo berriagoak ere. Mugitzen ari garen seinale dira. Hori bai, jakina, erne egotea eskatzen digute, eta erantzun berriak aurkitzea eta *asmatzea*. Erantzunak, ez erantzuna; eta erantzun berriak, ez betiko errezeta.

Izan ere, eraldaketa handiak egin ahal izatea eta eraldaketa horiek benetako gizakiaren neurrian egitea, eraldaketa txiki, amets txiki asko gauzatzearen baitan daude. Eta elkarrekin egin beharreko lana dugun hori, inondik etortzekotan, berrikuntzaren bidetik helduko da, berrikuntza bera partekatzeke gai garen neurri berean.

Langintza horretan, zientziaren filosofiara begira jarrita, Karl Popper filosofoa har genezake gidari, haren “aieru-errefusapen” eta “*entsegu / huts egite*” dinamika izango baitugu ezinbesteko lanabes. Dinamika hori, zientziagintzaren akuilu izan den neurri berean, antidoto eraginkor izan dezakegu gure eremuan hain errotua dagoen “hau beti egin da horrela” lelo kontserbadorearen kontra. Azken batean, huts egiteko beldur geldiarazlea uxatu behar dugu gure baitatik. Eta horretarako berrikuntza proiektuak eta berrikuntza-guneak behar ditugu. Jakina, helburua ez da huts egitea, asmatzea baizik. Baina ezin izango dugu asmatu, ezin izango dugu bide berririk aurkitu, huts egiteari beldurra galtzen ez badiogu, ausarkeriarik gabe noski, bistan da hori. Jarrera horrenik gabe ez dago sormenik, eta sormenik gabe ez dago berrikuntzarik. Eduki, metodologia, gune eta tresna berritzaileen beharrea gaude, etengabe berrasmatzen jarduteko, arazo eta eginkizun berriei eragin-kortasunez erantzun nahi badiegu.

Euskararen inguruko diskurtsoetan ausardia behar da, horretarako. Ausardia, berrikuntza sakonei ekiteko; ausardia, amets txikiei etekin handia ateratzeko; ausardia, lankidetzeta leialan aritzeko, aurrejuzkuak alde batera utzita. Ausardia, onartzeko, gure herrenen sorburu nagusiaren bila goazenean eraginkorragoa izango zaigula hirugarren batzuegan ez baizik eta geugan jartzea begirada. Ausardia, onartzeko, amets txikiak betetzeko bidea egitea dela helburu handietara hurbiltzeko modu bakarra.

Estrategia berritzaileak behar ditugu; ekintza, ikerkuntza eta esperimentazioa uztartu behar ditugu, eta horretarako sistematizatu behar dugu berrikuntzaren alorreko lana, besteak beste berrikuntza-gune iraunkorrak bultzatuz.

**Agertuko
zaizkigu gaur
oraindik agertu
ez zaizkigun
korapilo
berriagoak ere.
Mugitzen ari
garen seinale
dira.**

**Eduki,
metodologia,
gune eta tresna
berritzaileen
beharrean gaude,
etengabe
berrasmutzen
jarduteko, arazo
eta eginkizun
berriei
eraginkortasunez
erantzun nahi
badiegu.**

**Unibertsitatea-
rekin eta euskara
teknikariekin,
askoren arteko
elkarlanean
berritu nahi
dugu.
Berrikuntza**

3. PROPOSAMENAK ALETZEN

Jarraian aletzen direnak proposamen irekiak dira, guztiz irekiak, egin-kizun hauen burutzapenean zeresana eta zeregina duten guztien artean, elkarrekin alegia, lantzekoak eta aberastekoak. Eta proposamen hauen abiapuntuan, konpromiso sendo bat dago: Eusko Jaurlaritzak, hizkuntza politikaren alorrean hain garrantzizkoa den eremu honetan, adminis-trazioaren eremuan, V. Plangintzaldiaren testuinguruan, berritu egin nahi du, eta berritu egingo du, eta eginkizun horretan, beste askorekin, besteak beste euskara teknikari eta arloko profesionalekin, batera lan egin nahi du. Izan ere, egiten den hori bera berritzailea izateaz gain, egiteko moduak ere (“elkarrekin eta elkarrentzat”, Udaltop honetako leloari jarraiki) ekarpen berritzailea izan behar du.

Estrategia berritzaileak behar ditugu, beraz, eta horiek bultzatuko ditu Jaurlaritzak, “elkarrekin berritu” eta “elkarrekin irabazi” ideiak oinarri hartuta. Ahalegindu behintzat, ahaleginduko gara.

Berrikuntza sistematikoki egiteko, berrikuntza-guneak behar ditugu. Horregatik, V. plangintzaldian jasotzen diren erronka eta korapiloiei erantzuteko berrikuntza-gune iraunkorrak sustatu nahi ditugu, berrikuntza beharrik edo lehentasunik handiena duten gaien inguruan esperientziak garatzeko, unibertsitateko ikertzaileen eskutik, besteak beste. Asmoa da, premiazko gaietan eta helburu definituekin berrikuntza gu-neak osatzea eta berrikuntza proiektuak garatzea. Behar dugu inbertitu ikerketan, garapenean eta berrikuntzan.

Eta berrikuntza, lehenago ere esan dudanez, elkarlanean egin nahi dugu, elkarrekin, berrikuntza denontzako delako ezinbestekoa. Uni-bertsitatearekin eta euskara teknikariekin, askoren arteko elkarlanean berritu nahi dugu. Berrikuntza proiektuetan sortzen den ezagutza teo-riko-aplikatua proiektu taldeetan parte hartzen duten euskara teknika-riez gain, gainerako euskara teknikariek ere bereganatu eta barneratzeko bitartekoak abian jarriko ditugu.

Asmatuko dugu elkarrekin aritzeko eta elkarlanerako formula, eta kontuan hartuko ditugu, nola ez, orain arteko egiturak:

—HAKOBA (Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea: Eusko Jaur-laritzako HPS, Ogasun Saila eta Hezkuntzako Sailburuordetza, HABE, 3 foru aldundiak, 3 hiriburuetako udalak, UEMA eta EUDEL).

—Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan udal, mankomunitate eta kua-drillatako euskara teknikariak koordinatzeko guneak: Alkarbide, Udal<>Ekin...

- Eskualdeka ere udaletako euskara teknikariak elkarrekin garatzen dituzten hainbat ekimen eta lan ildo: Buruntzaldean, Oarsoaldean,
- Debagoienean, Debabarrenean...
- Eusko Jaurlaritzako Saitetan diharduten euskara teknikarien bilgunea.

2015-2017 epealdian lantzeko begiz jota ditugun arlo posibleak dira proposatzen ditugunak. Proposamena guztiz irekia da, baina hizkuntza normalizazio prozesuan gaur eta etorkizunean izango duten garrantziagatik eta eraginagatik, iruditzen zait arlo hauetan asmatu beharko genukeela aurrera eraginkortasunez nola egin. Hauetan, beste batzuen artean.

3.1 Nola sustatu erakundeetako liderren hizkuntza jokaera eredugarriak?

Eralan-en ildoan, merezi du lidergo eraldatzailearen bidetik orain arte egindako lanari jarraipena ematea, ikusi delako hainbat kasutan lagundu egiten diola euskara teknikariari bere erakundeko lider eta arduradunekin lan egiteko modu berri batera eta harreman-modu berri batera iristen.

3.2 Nola igaro gaztelaniazko hizkuntza erabileratik euskarazkora?

EAEko egungo egoera soziolinguistikoan, eta azken urteotan izan dugun bilakaera kontuan hartuta, garrantzi handikoa da euskara ikasi duten erakundeetako lankideen portaera, gaztelanitik euskarara pasatzeari dagokionez.

Praktikara begiratu, Eusko Jaurlaritzako sailtako zenbait zuzendaritzatan (Enplegu Zuzendaritza eta Gazteria Zuzendaritza) Aldahitz programa abian jarri da. Gure azken balorazioan, esperientzia positibotzat jo dute inplikaturako langileek: “eusle” naturalak (aurretik euskaraz egiteko joera zutenak) eroso sentitu dira, eta eskertu dute horrelako ekimen bat abian jartzea. Horiek lankide batzuekin aurretik izandako gaztelaniarako joera euskarara aldatu dute. Bestalde, euskaraz “kostata” aritzen direnek eta ezagutza erabilera bihurtu nahi dutenek eskertu dute proiektuaren garapena.

3.3 Zer egin erakunde-ordezkariek jendaurreko ekitaldietan euskara gehiago erabili dezaten?

Guztiz beharrezkoa dugu, askotan errepikatu dugunez, erakunde publiko eta pribatuek beren eguneroko jendaurreko jardunean, euren ohiko

Baina gai honetan ere, aldaketak ez dira gauek goizerakoak, gaztelaniaren aldeko inertziak sendo irauten duelako ohituretan eta jokaeretan.

jarduera publikoan euskara gaur baino gehiago erabiltzea. Baina gai honetan ere, aldaketak ez dira gauetik goizerakoak, gaztelaniaren aldeko inertiak sendo irauten duelako ohituretan eta jokaeretan.

Hori gogoan hartuta finkatu ditugu, hain zuzen ere, V. plangintzaldirako Erabilera Planean goi kargu politiko eta erakunde ordezkarien jardun publikoari begirako hizkuntza irizpideak.

Azaldutakoari jarraiki, garbi ondorioztatzen da Eralan eta Aldahitz programek garapen berritzaileak behar dituztela. Lantzeko alor garrantzitsua dugu hori, eta Soziolinguistika Klusterrarekin jada irekitako bitetik jarraituko dugu lankidetzan, aurrerantzean ere. Elkarrekin berrituz. Elkarrentzat berrituz. Bakarka ezer gutxi egin baitezakegu; elkarrekin, asko. ●

OHARRA

1. “Eusko Jaurlaritzaren Plana V. Plangintzaldian: berrikuntzak” izenburupean 2014ko maiatzaren 16an Udaltop Soziolinguistika jardunaldietan eman nuen hitzaldia oinarritzat hartuta moldaturiko artikulua da hau.